



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537
muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>



AURKIBIDEA

1. SARRERA.JUSTIFIKAZIOA
2. HELBURU OROKORRAK ETA JARDUEREN PLANIFIKAZIOA
3. IRAKAS-JARDUEREN PROGRAMA
 - 3.1. Ohiko irakaskuntza-jarduerak
 - 3.1.1. Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak
 3. 1. 2. Esperientziak, programak eta proiektuak
 3. 1. 3. Prestakuntza eta garapen profesionala
 - 3.2. Irakaskuntza-jarduera osagarrien programa
4. ESKOLAZ KANPOKO JARDUEREN PROGRAMA
5. ESKOLAKO ZERBITZUAK
6. EKONOMIA-KUDEAKETARAKO PLANA
7. HEZKUNTZA-KOMUNITATEARI INFORMAZIOA HELARAZTEKO PLANA
8. IUPren GARAPENAREN ETA IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN JARRAIPENA
9. ERANSKINAK
 - 9.1. OOGren onartze agiria
 - 9.2. "Inklusiorako bideetan trebatzen" proiektua



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537
muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>



SARRERA. JUSTIFIKAZIOA.

Ikasturteko Urteko Plana egiteko ikastetxearen egungo egoera izan dugu kontuan, iazko urteko memoria, abian dauzkagun proiektuak eta ebaluazio diagnostikoaren ondorioz egindako Hobekuntza Plana.

Horrez gain, eskolako estamentu desberdinek parte hartzea nahi izan dugu, eta, OOGko kideei eskatu zaie eskolako egoera ikusita, urteko memoria irakurrita aurten jorratu nahi luketen gaia edo helburua azaltzea. Gauza bera egin dugu Guraso Elkarterekin, eta zuzendaritza-batzordeari bere ekarpenak egiteko eskatu zaio.

Plangintza egiteko modu hau bat dator zuzendaritza proiektuan jarritako lehenengo helburuarekin, hots, "Ikastetxeko partaide guztiak bertako parte garrantzitsu eta oinarritzko sentiaraztea. Jakin dezatela ekarpen guztiak aintzat hartuko zaizkiela eta edozein berripen puntualki jakinaraziko zaiela". Eta ondorengo helburuak ere bat datoz, oinarrian, zuzendaritza proiektuaren helburu orokorrek.

Irakasleek ere, noski, planaren zatirik handiena erabaki dugu.

Beraz, eta laburbilduz, helburu orokorrak iturri desberdinetatik hartuta daude:

- Gurasoek proposatutakoak (OOG, Guraso elkarte)
- Eskolako proiektuetatik hartutakoak: NOLEGA, elkarbizitza, A 21, kalitatea hezkuntzan, formakuntza proiektua...
- Hobekuntza planean islatutakoak
- Zuzendaritza proiektutik hartutakoak.

Helburu batzuk dokumentu edota iturburu bat baino gehiagori dagokie, beste batzuk, berriz, bakarrari.



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

HELBURU OROKORRAK

ITURBURUA	HELBURUA
1.- 2010-2011 ikasturteko memoria	* Maila desberdinetan errefortzu jarduerak planifikatu, adostutako irizpideen arabera.
2.- Batzorde pedagogikoa	* Ikasle berriei buruzko informazioa jasotzeko prozedura ezartzea.
3.- 2010-2011 ebaluazio diagnostikoaren ondorengo Hobekuntza Plana	* Matematiketako buruketak lantzeko lan kooperatiboa antolatzea hilero saio baten
4.- Zuzendaritza proiektua	* Antolaketa hobereana lortzea maila guztietan, nor bere lanari dagokionean etekin handiagoa ateratzeko eta gure esku dauzkagun baliabideak errentagarriago bihurtzeko. * "Inklusiorako bideetan trebatzen" formakuntza proiektua abian jartzea.
5.- AJA	* Ziurtatu irakasle guztiek AJA ezagutzen dutela.
6.- Elkarbizitza Plana	* Sentsibilizazio fasea burutzea eta, ondoren, iaz egindako diagnostia kontuan hartuta, plangintza egitea.
7.- Normalkuntza proiektua	* Nolega batzordea "berpiztu" eta estamentu guztiei haren inguruko informazioa nola eman zehaztea.
8.- Agenda 21	* Barakaldoko gainerako eskola eta udaletxearekin batera kontsumo gaia jorratzea.
9.- Kalitatea Hezkuntzan proiektua	* Aurreko urteetan landutako prozesuak berrikustea eta idatzita izatea.
10.- "Inklusiorako bideetan trebatzen formakuntza proiektua	* Proiektuaren lehenengo fasea burutzea: formazioa eta geletan saio batzuk egitea, haren erregistroa jaso eta emaitzak aztertzea.
11.- OOG	* Urtean zehar egiten diren irteerak aztertzea: egokitasuna eta eraginkortasuna.
12.- Guraso Elkarte	* Eskolaz kanpoko ekintzak egiteko tokiak adostea.



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.

Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA

Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537

muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>



HELBURU OROKORRAK ETA JARDUEREN PLANIFIKAZIOA

HELBURUAK	JARDUERAK	ARDURADUNAK	BALIABIDEAK	DENBORA	EBALUAZIO Adierazleak
* Maila desberdinetan errefortzu jarduerak planifikatu, adostutako irizpideen arabera.	- Irizpideak idatzi eta batzorde pedagogikoan aztertu. - Irakasleen proposamen eta iritziak jaso.	Zuzendaritza-taldea. Batzorde pedagogikoa	Irizpideak idatzita.	Lehenengo hiruhilekoan	Irizpideak idatzita daude. Gutxienez ziklo guztietako iritzi bana jaso dira.
* Ikasle berriei buruzko informazioa jasotzeko prozedura ezartzea.	- Irakasleei sumatzen dituzten beharrak eskatu. - Aholkulariak eta zuzendariak aztertu. - Prozesua idatzita eman.	Zuzendaria Aholkularia	Irakasleek emandakoa.	Lehenengo hiruhilekoaren amaieran, 2.aren hasieran.	Prozesua idatzi da eta laguntza gelako koadernoan eta zuzendaritzako matrikulazio prozesuan sartu da.
* Matematiketako buruketak lantzeko lan kooperatiboa antolatzea hileroko saio baten	- Ziklo bakoitzak hileko lan saio bat zehaztu matematika lantzeko.	Irakasle guztiak.	Berritzeguneko materiala	Ikasturte osoan zehar.	Ziklo bakoitzeko maila guztietan programazioan agertzen dira.
* Antolaketa hoberena lortzea maila guztietan, nor bere lanari dagokionean etekin handiagoa ateratzeko eta gure esku dauzkagun baliabideak errentagarriago bihurtzeko.	- Maila bakoitzari koordinazio saio bana ipini ordutegi barruan. - Lan kooperatiboan formakuntza proposatu.	Zuzendaritza-taldea	Berritzeguneko aholkularitza.	Ikasturte hasieran	Ordutegietan irakasle guztiek dute koordinazio saioa zehaztuta.



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.

Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA

Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537

muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>



HELBURU OROKORRAK ETA JARDUEREN PLANIFIKAZIOA

HELBURUAK	JARDUERAK	ARDURADUNAK	BALIABIDEAK	DENBORA	EBALUAZIO Adierazleak
* "Inklusiorako bideetan trebatzen" formakuntza proiektua abian jartzea.	- Berritzeguneko aholkulariekin saio teorikoak. - Geletan saio praktiko batzuk. - Saioen erregistroa eta hausnarketa taldean.	Zuzendaritza-taldea Irakasleak	Berritzeguneko aholkularitza. Barakaldoko Pedagogia Jardunaldiak	Ikasturte osoan zehar.	Saio teorikoetara irakasleen %100 etorri da. Gutxienez, talde bakoitzean 3 saioen erregistroa jaso da.
* Ziurtatu irakasle guztiek AJA ezagutzen dutela.	- Irakasle berriei eta betikoei AJA irakurtzeko eman. - Iritziak jaso.	Zuzendaritza-taldea Batzorde pedagogikoa	AJA bera.	2. hiruhilekoan	Ziklo guztietako iritziak jaso dira.
* Sentsibilizazio fasea burutzea eta, ondoren, iaz egindako diagnostia kontuan hartuta, plangintza egitea.	- Bakeola taldearekin sentsibilizazio fasea burutu. - Diagnostia aztertuta, guraso eta irakasleekin osatutako batzordean plangintza idatzi.	Zuzendaritza-taldea	Diagnosiko galdeketak Bakeolaren aholkularitza	Lehenengo eta bigarren hiruhilekoetan.	Elkarbizitzaren kontzeptua idatzi eta adostu da. Plangintza idatzi da.



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.

Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA

Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537

muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>



HELBURU OROKORRAK ETA JARDUEREN PLANIFIKAZIOA

HELBURUAK	JARDUERAK	ARDURADUNAK	BALIABIDEAK	DENBORA	EBALUAZIO Adierazleak
* Nolega batzordea "berpiztu" eta estamentu guztiei haren inguruko informazioa nola eman zehaztea.	- Nolega batzordea biltzeko egunak zehaztu. - Informazioa emateko bideak eta moduak idatzi.	HNAT Nolega batzordeko kideak	Berritzeguneko aholkularitza.	Ikasturte osoan zehar	Batzordea gutxienez hilero behin elkartu da (aktak). Informazioa zelan eman idatzi da.
* Barakaldoko gainerako eskola eta udaletxearekin batera kontsumo gaia jorratzea.	- Hileko bileretara joan. - Gaia lantzeko jarduerak proposatu.	Agenda 21eko arduraduna	Udal taldeko eta CEIDAKo aholkularitza.	Ikasturte osoan zehar	Bileretako aktak Amaierako ebaluazioa
* Aurreko urteetan landutako prozesuak berrikustea eta idatzita izatea.	- Prozesu guztiak berrikusi. - Dokumentuak idatzi	Zuzendaritza-taldea	Berritzeguneko aholkularitza Eibarko mintegia Dauzkagun dokumentuak	Ikasturte osoan zehar	Prozesu guztiek esku-liburua eta kontrol plana dituzte osatuta.
* Urtean zehar egiten diren irteerak aztertzea: haien egokitasuna eta eraginkortasuna.	- Irteera bakoitzaren helburuak aztertu. - Burutu ondoren hausnarketa egin zikloan. - OOGri azalpenak eman	Batzorde pedagogikoa Irakasleak	Irteeretako zerrenda	Ikasturte osoan zehar	OOG bateko aktan agertzen dira azalpenak



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.

Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA

Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537

muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>



HELBURU OROKORRAK ETA JARDUEREN PLANIFIKAZIOA

HELBURUAK	JARDUERAK	ARDURADUNAK	BALIABIDEAK	DENBORA	EBALUAZIO Adierazleak
* Eskolaz kanpoko ekintzak egiteko tokiak adostea.	- Guraso elkarteko arduradunekin elkartu eta lekuak bilatu.	Zuzendaritza-taldea GEko arduradunak	Bilerak	Ikasturte hasieran, batez ere, eta amaieran.	Jarduerak egiteko leku bat baino gehiago topatu da.



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



A21e
Barakaldo

muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

IRAKAS-JARDUEREN PROGRAMA

3. 1. OHIKO IRAKASKUNTZA-JARDUERAK

3. 1. 1 ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAREN ASPEKTUAK

IRAKASLEEN EGINBEHARREN ESLEIPENERAKO ETA TUTORETZEN BANAKETARAKO IRIZPIDEAK

Tutoretzak banatzerakoan lehenengo irizpidea da irakasleak zikloa jarraitzea. Hori eginda, ziklo hasierako taldeak aukeratzen dira antzintasunaren arabera. Hala ere, egoera bereziak gertatzen direnean (talde gatazkatsuak, ikasle arreta berezikoak, eskolarizazioan zehar tutorea maiz aldatu duten taldeak...) irakasleok edo zuzendaritzatik proposamen zehatzak egiten dira, egonkortasuna bilatzeko.

Gainerako kargu eta eginbeharretarako ez dago irizpide zehatzik. Bilatzen dugu egonkortasuna, egokitasuna, gaiaren inguruko ezagumendua eta ordutegietan moldatzeko erraztasuna. Horrela aukeratu dira proiektuetako arduradunak.

1 - TUTORETZEN BANAKETA

HAUR HEZKUNTZA	2 URTE	Igotz Espeja Elisabet Quijada	Maite Larruzea Silvia Indias
	3 URTE	Marian Alicante	Marian Calzada
	4 URTE	Marian Leal	Zutoia Echeandia
	5 URTE	M ^a Carmen Manrique	Ana Isabel Gutiérrez
LEHEN HEZKUNTZA	1.	Aitziber Oribe	Marta Guisasola
	2.	Enrique Lekuona	Luzma Azkona
	3.	Nekane Zorrilla	Jose Luis Fernandez
	4.	Inés Díaz	Inmaculada Medina
	5.	Blanca Ribeira	Ricardo Arana
	6.	Conchi Rodríguez	Karmele Sánchez

2 - ESPEZIALISTAK

INGELESA	Chelo García	Marta Fraile / Nadia Serbal
G. HEZIKETA	Merche González	
MUSIKA	Ruth Sedeño	
AHOLKULARIA	Kepa Otero	
PT	Chelo Martin	Nagore Etxeandia



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



muku@mukusulubalhi.net http://www.mukusulubalhi.net

3 - JANTOKI ARDURADUNA: Menchu Sánchez

4 - ATEZAINZA:

Begoña Bravo	M ^a Carmen Fernández
--------------	---------------------------------

5 - PERTSONA BAKARREKO KARGUAK:

ZUZENDARIA	Bego Iriondo
IKASKETA BURUA	Tere Laka
IDAZKARIA	Lourdes Olaetxea

6 - ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA (EGA/AKA): Lourdes Olaetxea

7 - TEKNOLOGIA BERRIEN ARDURADUNA (IKT): Jose Luis Fernandez

8 - ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ARDURADUNA: Chelo García

9- BIBLIOTEKAKO ARDURADUNA: M^a Carmen López.

10 - ZIKLO-KOORDINATZAILEAK:

HAUR HEZKUNTZA	Elisabet Quijada
LH 1. ZIKLOA	Ruth Sedeño
LH 2. ZIKLOA	Chelo García
LH 3. ZIKLOA	Merche González

11 - PROIEKTUEN ARDURADUNAK:

INGELESAREN SARRERA GOIZTIARRA	Chelo García
HIZKUNTZA NORMALKUNTZA	Lourdes Olaetxea
KALITATEA HEZKUNTZAN	Tere Laka
INKLUSIORAKO BIDEETAN TREBATZEN	Tere Laka
AGENDA 21	Conchi Rodriguez
BIBLIOTEKA	M ^a Carmen López



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
 Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
 Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

12 - OOG

ZUZENDARIA	<i>Begoña Iriondo</i>
IKASKETA BURUA	<i>Teresa Laka</i>
IDAZKARIA	<i>Lourdes Olaetxea</i>
IRAKASLEAK	<i>GURASOAK</i>
Kepa Otero	<i>Mónica García</i>
Elisabet Quijada	<i>Joseba Andoni González</i>
M ^a Carmen Manrique	<i>David Díez</i>
Marta Guisasola	<i>M^a del Mar Alonso Ruiz</i>
M ^a Carmen López	<i>Inmaculada Prieto</i>
Mercedes González	<i>Yolanda Prieto</i>
Ana Gutiérrez Cea	<i>Antonio Iñiguez</i>
M ^a Carmen Sánchez	<i>Miguel Ángel Díez</i>
Ruth Sedeño Moradillo	<i>Pilar Martin de Hijas</i>
Inés Teresa Díaz	<i>Txaro de Castro</i>
	<i>Ana de Dios</i>
	<i>Aitor Zugasti</i>
	<i>Begoña Arana</i>
ZERBITZUAK	<i>M^a Carmen Fernández</i>
UDALETXEKO ORDEZKARIA	<i>Izendatu barik</i>

IRAUNKORRA	<i>MÓNICA GARCÍA</i>	EKONOMIA	
<i>BEGO IRIONDO</i>	<i>AITOR ZUGASTI</i>	<i>LOURDES OLAETXEA</i>	<i>DAVID DÍEZ</i>
<i>KEPA OTERO</i>	<i>INMACULADA PRIETO</i>	<i>MERTXE GONZÁLEZ</i>	<i>MIGUEL ANGEL DÍEZ</i>
<i>RUTH SEDEÑO</i>	<i>ANA DE DIOS</i>	<i>MARTA GUIASOLA</i>	<i>CHARO DE CASTRO</i>

JANTOKIA		ESKOLAZ KANPOKOAK	
<i>TERE LAKA</i>	<i>MONICA GARCIA</i>	<i>M^a CARMEN LOPEZ</i>	<i>PILAR MARTIN DE HIJAS</i>
<i>ELISABET QUIJADA</i>	<i>MAR ALONSO</i>	<i>ELISABET QUIJADA</i>	<i>AITOR ZUGASTI</i>
<i>M^a CARMEN LOPEZ</i>		<i>M^a CARMEN FERNÁNDEZ</i>	
<i>MENTXU SÁNCHEZ</i> 2 monitore (1 sukaldekoa)			

AUTOBABESA		INGURUMENA	
<i>BEGO IRIONDO</i>	<i>MONICA GARCIA</i>	<i>ANA GUTIERREZ</i>	<i>ANTONIO IÑIGUEZ</i>
<i>MERCHE GONZALEZ</i>	<i>AITOR ZUGASTI</i>	<i>M^a CARMEN MANRIQUE</i>	<i>MIGUEL ANGEL DIEZ</i>
	<i>DAVID DIEZ</i>		



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

JARDUERA ESKLUSIBO SAIOEN ANTOLAKETA

Esklusiba orduak honela banatzen dira:

Astelehenak, ziklo bilera

Astearteak, mailako bilera. Ziklo bilera amaitu barik gelditzen bada asteartean amaitzen da.

Asteazkenean, formakuntza saioak

Ostegunean, gurasoekiko bilerak

Ostiralak, klaustroa biltzeko deia egiten bada.

IKASLEAK TALDEKATZEKO IRIZPIDEAK

Ikasleak lehenengo aldiz eskolara sartzen direnean 2 urteko geletan talde heterogeneo eta orekatuak izateko honela egiten dira: neska-mutil kopurua, bikiak (gurasoen iritzia kontuan izaten dugu), jaiotze-data (hilabete guztietakoak), jantokian gelditzen diren ala ez, euskaldunak diren, izenak ez errepikatzea, HPBkoak diren, neba-arrebak dituzten. Zerrendak 2 urteko tutoreak izango ez direnek egiten dituzte (zuzendaritza ala beste irakasleak)

Lehen Hezkuntzan ziklo bakoitza hastean ikasleak nahastu eta banatzen dira, talde orekatu eta heterogeneoak sortuz, ikasleen arteko ezagutza aberasteko eta geletan sortutako estereotipoak ezeztatzeko. Taldekatzeko berria aurreko urtean izandako tutoreek egiten dute espezialisten iritzia kontuan hartuta. Egoera bereziak gertatzen badira arreta berezia jarriko da. Lehenengo aldiz sartzen direnak, berriak edo errepikatzaileak direlako, euren ezaugarriak kontuan hartuz, hobeto datorkien taldean jartzen dira.

HEZKUNTZA-ERREFORTZUA ETA LAGUNTZA ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK

Hezkuntza errefortzua eta laguntza bi modutara antolatzen da: bi irakasle talde batean, taldeen bikoizketa egiten.

Laguntzen antolaketa zuzendaritza-taldeak egiten du laguntza gelako irakasleen aholkularitzarekin. Horretarako, laguntza gelako asteroko koordinazio saioan parte hartzen du zuzendariak. Gainera, ebaluazio saioetako informazioa jasotzen du ikasketa buruak eta ikasturte amaieran irakasleei taldeko ume bakoitzaren oharrak eskatzen zaizkio (bai ikasketetan nola dabilzan bai izaera portaera aldetik nola dabilzan). Ikasturte amaieran ziklo bakoitzak egindako memoria irakurtzen da, emaitzak aztertzeko eta hurrengo urteari begira egiten diren proposamenak jasotzeko.



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



A21e
Barakaldo

muku@mukusulubalhi.net http://www.mukusulubalhi.net

Hori guztia kontuan hartuta, ordutegiak egiterakoan aztertzen da laguntza gelako irakasleak zein taldetan sartzen diren. Begiratzen da ere taldeko ume kopurua eta maila.

Saiatzen gara laguntza edo bikoizketa, kasuan kasu, maila bereko irakasleak egiten. Ezin denean, ordu gehiago libratzen dutenen artean esleitzen dira.

Aurten 1. mailatan 4 saio jarri dira gela bakoitzean, oso kopurutsuak direlako, PTERik sartzen ez delako eta zailtasunak dituzten umeak badaudelako. Gainerako taldeetan sai bi ala bat jarri dira.

Helburuetan aipatu bezala, aurten irizpideak aztertu eta adostuko dira.

ESPAZIO KOMUNEN ANTOLAKETA ETA BANAKETARAKO IRIZPIDEAK

Espazio komunak dira gimnasioa, psikomotrizitate gela, laborategia eta informatika gela. Biblioteka bertako arduradunak antolatzen du.

Gimnasioan lehenengo saioa 2 urtekoei uzten zaie, sarrera ordutegi malgua daukaten bitartean espazio bakarrean hartzeko umeak.

Psikomotrizitate gelako ordutegia HHko zikloak antolatzen du. Lehentasuna 3 urteko taldeek daukate, eta ziurtatzen da saio luzeenak hartzen dituztela. Oreka bilatzen da saio luze eta laburren artean.

Laborategian eta informatika gelan lehentasuna tailerrei ematen zaie. Gero 3. ziklokoak ez direnei (Eskola 2.0 daukatelako) eta ingeleseko irakasleei. Ordutegien antolaketa batzorde pedagogikoak egiten ditu.

3. 1. 2 ESPERIENTZIAK, PROGRAMAK ETA PROIEKTUAK

INGELESAREN SARRERA GOIZTIARRA: hizkuntzaren ikasketa globalizatua, beste irakasgaiekin elkarlotuta: inguru, matematika...

Aurreko ikasturteetan bezala, 4 urteko umeekin hasten da ematen.

KALITATEA HEZKUNTZAN: 3 urteko proiektua izan da. Iaz auditoretza pasatu behar genuen, baina ez geneuzkan prozesuak prest, ikastetxeak ez du ziurtagiririk bilatzen, eta uko egin genion. Ikastetxean, prozesuak lantzen jarraitzen dugu, eta Eibarko mintegian parte hartzen dugu.

AGENDA 21: Ikasleen artean birziklatze-ohiturak eta ingurumenarekiko errespetua bultzatzeko proiektua da. Barakaldoko gainerako eskolekin eta udaletxearekin batera egiten da.

HIZKUNTZAREN NORMALKUNTZARAKO PROIEKTUA: Irakasleen artean euskararen ezagutza sakontzea du helburu, eta bere erabilera ahalik eta zabalena izatea ikasleen artean eta ikastetxearen inguruan. Garrantzi berezia dute



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

Euskegiñek eta bere jolasak eta eskola-irratia. Aurten, informazioa nola eman zehaztuko da.

BIBLIOTEKA: irakasle bat dago, bakarrik biblioteka antolatzeko eta mantentzeko, bai eskola ordutegian, bai eskolaz kanpokoan. Irakurzaletasuna bultzatzea du helburu.

INKLUSIORAKO BIDEETAN TREBATZEN: geletako aniztasunari erantzuteko irakasleon formakuntza, lan kooperatiboan oinarrituta. Aurten fase teorikoa egingo dugu, eta saio praktiko batzuk hausnarketarako.

3. 1. 3 PRESTAKUNTZA ETA GARAPEN PROFESIONALA

Proiektu horiek garatzeko eta irakasleon prestakuntzarako, Berritzeguneko zerbitzuak erabiltzen ditugu mintegi hauetan parte hartuz ordutegi barruan:

Zuzendarien mintegia: zuzendaria ostegunetan hamabostean behin.
Ikasketa buruen mintegia: ikasketa burua ostegunetan hilean behin.
PTEn mintegia: PTEk asteartetan hilean behin
Aholkularien mintegia: aholkularia ostegunetan hamabostean behin
Musikakoen mintegia: musikakoa hilean behin
Haur hezkuntzako mintegia: HHko irakasle bat asteartetan hilean behin.
Ingelesekoen mintegia: ingeleseko irakaslea astelehenetan astero.
Nolega mintegia: HNAT ostegunetan hilean behin.
Agenda 21 mintegia: A 21 arduraduna asteazkenetan hilean behin.
IKT mintegia: asteartetan hamabostean behin.
Eskola 2.0 abileziak: 6. mailako tutoreak astelehenetan hamabostean behin.

Horretaz aparte, eskolan asteazkeneko formakuntza ordutegia daukagu: 13:00-15:00.

Azaroan Barakaldoko Pedagogi Jardunaldietan hartzen dugu parte irakasle batzuek. Lehenengo saioa ordutegi barruan eta bigarrena ordutegiz kanpo.

3. 2 IRAKASKUNTZA-JARDUERA OSAGARRIEN PROGRAMA

HAUR HEZKUNTZAKOAK:

Barakaldoko udalak antolatutak: Antzerkia (Barakaldo antzokia)
Zinea (Clara Campoamor)
Kontzertu didaktikoa (txistu)
Euskara Piztuz (euskal astea)



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



muku@mukusulubalhi.net http://www.mukusulubalhi.net

Lorategi botanikoa

Irakasleek antolatua: Olentzero (kalez kale)
Baserria (5 urtekoak)
Agate Deuna (eskola barruan gelaz gela)
Ikasturte amaierako txangoa

LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOKOAK:

Barakaldoko udalak antolatua: Antzerkia (Barakaldo antzokia)
Zinea (Clara Campoamor)
Kontzertu didaktikoa (Barakaldo antzokia)
Bihar txotxongilo taldea (Barakaldo antzokia)
Nagusitu programa
Kontsumo tailerrak
Euskara piztuz

Irakasleek antolatua: Olentzero (kalez kale)
Ikasturte amaierako txangoa

LEHEN HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOKOAK:

Barakaldoko udalak antolatua: Kontzertu didaktikoa
Zinea eta antzerkia
Euskara piztuz (euskal astea)
Bide-hezkuntza.
Kontsumo tailerrak
Hitz-truke, hitz-batu (irakurzaletasuna
sustatzeko)
Merkatu txikia (azoka solidarioa)

Irakasleek antolatua: GUP
Agate Deuna (mendira)
Ikasturte amaiera

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ZIKLOKOAK:

Barakaldoko udalak antolatua: Barakaldo antzokia
Baso biziduna (ingurumenarekin eta A21ekin
lotuta)
Ezagutu Barakaldo
Bide hezkuntza
Txistu kontzertua

Irakasleek antolatua: Museo etnografikoa /alde zaharra
Ingeleseko barnetegia

Ikastetxeko urteko plana 2011/12



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



A21e
Barakaldo

muku@mukusulubalhi.net http://www.mukusulubalhi.net

GUP
Arte ederretako museoa
EITB
Euskalduna (ABAO)

Gorputz-hezkuntzaren irakasgaiaren barruan, halaber, irteera batzuk egingo dira, ikastetxearen inguruan jarduerak egiteko: lorategi botanikoa, Eguzkiagirreko frontoia...

Aipatutako jardueraz gain, beste zenbait irteera ere egin daitezke, plangintza honetan zehaztu gabeak, eta ikasturtean zehar sortu daitezkeenak. Jarduera hauei guztiei buruz informazioa helaraziko zaie familiei.

3 - ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK :

Eskolaz kanpoko jarduerak eskola-ordutegitik kanpo egiten direnak dira, eta gaur egun haien helburua da, batez ere, eskola-ordutegia eta familien ordutegiak bateratzea, araututako heziketa osatu dezaketen arloak eskainiz.

Jarduerak Guraso Elkarteak antolatzen ditu, OOGko Eskolaz kanpoko batzordeak gainbegiratuta, eta beren finantziario eta antolaketa propioa dute. Ikasturte honetan egingo direnak hauek dira:

Futboltxoa
Karate
Xakea
Biblioteka.
Txiki-ritmoa
Street-dance
Euskal-dantzak

ESKOLAKO ZERBITZUAK

JANTOKIA:

Jantokia ikastetxeko zerbitzua da, eta bertako funtzionamendu orokorrean sartuta dago. Bere garrantzia duenez, eskola-bizitzako ataltzat hartuko dugu bere arau eta ordutegiekin (13:00 - 15:00)

Bere helburuak AJAn agertzen dira eta, oinarrian, espazio hezitzaile moduan kontsideratzen dugu.



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

Gure jantokia kudeaketa zuzenekoa da, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen du, eta badago eskolan jantoki arduraduna. Irakasle hori da jantokia eta bere funtzionamendua gainbegiratzen dituen zuzendaritza taldearen laguntzarekin.

Ikasle guztiei eskaintzen zaie, eta, aurten, 350 bazkalkide daude 2 jantokitan banatuta. HHkoek jantoki txikian bazkaltzen dute lehenengo txandan, ordu batetan, eta LHkoek jantoki handian 2 txandatan (ordu batetan eta ordu bietan). Jantokian ez daudenean patioak, psikomotrizitate gela, laborategia eta biblioteka erabiltzen dira solasaldirako.

Finanzioazioa Eusko Jaurlaritzak ezartzen du ikasturte hasieran, hark zati bat eta erabiltzaileek beste zati bat ordaintzen dutela.

BIBLIOTEKA:

Eskolan badugu biblioteka arduraduna. Eskolako irakaslea da eta ACEX programaren barruan dago.

Bere ordutegia eskolaz kanpokoetarako jardunera egokituta dauka, eta liburutegia eskola ordutegian ez ezik jantoki orduan eta arratsaldez ere zabaltzen da.

Hauek dira ordutegiaren arabera betetzen diren jarduerak:

Eskola ordutegian: fondoerregistro eta katalogazioa
(11:00-13:00) Espazioaren antolaketa eta hornikuntza
Liburuak konpontzea
Irakasleekin koordinazioa
Ume taldeekin lan egitea

Jantoki ordutegian: irakurketa
(13:00-15:00) Mailegua
Ipuin kontaketa (HH eta LH 1. zikloa)
Tailerrak

Arratsaldez: mailegua
(16:30-18:30) Ikasketa
Kontsulta
Tailerrak

Bibliotekako arduraduna batzorde pedagogikoan parte hartzen du, bere proposamen eta ekimenak azaltzeko eta eskolako informazioa jasotzeko.

EKONOMIA KUDEAKETARAKO PLANA

Orain arte aipatutako jarduera guztiek gastuak dauzkate. Beraz, oso garrantzitsua da behar ekonomikoak aztertzea.

Ekonomia kudeaketarako denbora-markoak (ohiko urtea) eta ikastetxearen urteko plana (ikasturtea) ez dator bat, horregatik ikasturte hasieran ziklo



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



muku@mukusulubalhi.net http://www.mukusulubalhi.net

bakoitzari diru bat esleituko zaio eta horretaz aparte zikloko beharrak aztertuko dira.

SARRERAK

Udaletxea

- "Caja Pagadora"- Ikastetxearen mantenu orokorra
- Ekintza desberdinak egiteko diru-laguntza

Eusko Jaurlaritza

- Ikasle eta irakasleentzako funtzionamendurako materiala: ikus-entzunezko materiala, fondo bibliografikoa, kontsulta liburuak, jolas didaktikoak, bulegoko materiala, eta irakas-jarduerarekin zerikusia duen guztia, zikloak eskatua.
- Ekipamendua.: mahaiak, aulkiak, armairuak e.a.
- Jantokia: kudeaketa zuzena. Ikasleen bazkaria Eusko Jaurlaritzak ordainduko du eta jantokiak sortutako gastuak ikastetxeak ordainduko du.
- Proiektuak: Nolega (IKE, EGE eta BRTSOLARITZA), AGENDA 21, KALITATE HEZKUTNZA, INKLUSIORAKO BIDEETAN TREBATZEN

Guraso Elkartea

Eskolaz kanpoko ekintzak eta ekintzak osagarriak

GASTUAK

Aurten ekipamenduan eta instalazio teknikoetan diru kopuru handia sartu beharko da .

Horrez gain eta beste urteetan bezala inbertsio handienak kontzeptu hauetan izango dira:

- Jantokia
- Instalazio tekniko, makinaria eta tresneriaren konponketak
- Bulegoko materiala
- Ikasmateriala
- Testu liburuak



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

HEZKUNTZA -KOMUNITATEARI INFORMAZIO PLANA

Ikastetxearen inguruko informazioa mota askotakoa da, eta estamentu desberdinei zuzendua.. Ondoren azalduko dugu, alde batetik, familiei nola ematen zaien, eta, beste alde batetik, langileen artean nola egiten dugun.

Familiei dagokiena:

- **Ikasturte hasierako bilerak:** egutegia eta ordutegia, harrera prozesua, gelako jarduerak eta antolaketa, ebaluazio irizpideak, eskolako arauak. Ikasturte hasieran egiten dira, eta familiekin daukagun lehenengo kontaktua da. Bileraren gidoia irakasleek adostuta dago eta gela guztietan jarraitzen da, informazio bera ematen dela ziurtatzeko. Ikasturteko lehenengo ziklo bileran berrikusten da bileraren gidoia, datu berriren bat aipatu behar den jakiteko eta irakasle berriei aurkezteko. Ikasketa buruak koordinatzen du eta ziklo koordinatzaileek gidatzen dute. Bilera hauetan familien iradokizunak ere jasotzen dira, gero zikloan komentatzen dira eta, behar izanez gero, batzorde pedagogikoan edo/eta zuzendaritzan tratatzen dira.
- **Web orria:** egutegia, informazio orokorra, langileak, zerbitzuak, araudia, ... Oraindik osatu gabe dagoen web orria daukagu, IKT arduradunak hornitzen duena zuzendaritzatik emandako informazioarekin. Badaude ere ziklo bakoitzeko atalak informazio zehatzagoa eta esperientziak aurkezteko erabiliko ditugunak. Badago aukera web orrian familiek beren iradokizunak aurkezteko edota informazio zehatzagoa eskatzeko. Bertan, urteko plana agertuko da.
- **Informazio orriak:** unean uneko informazio puntuala emateko (obrak, jantokia, irteerak, jaiak...) Orokorrak badira, zuzendaritzan prestatzen dira eta familiako banatzen dira. Zikloetakoak badira, zikloko koordinatzaileek edo irakasleek egiten dute eta umeko banatzen dira.
- **OOG:** ikastetxearekin zerikusia duten gai guztien informazioa eta onarpena, hala behar izango balitz. Foro honetan familien eskaera, proposamen eta kezka ere jasotzen dira. Urteko plana ere ezagutarazi eta onartuko da.
- **Guraso elkartea:** ez dago zehaztuta bilera egutegirik, baina, batez ere ikasturte hasieran eta amaieran, eskolaz kanpokoak edo elkartearen beharrak komentatzeko egiten dira bilerak zuzendaritza taldearekin. Bere bulegoan urteko planaren ale bat utziko da nahi duten gurasoek irakur dezaten.



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



A21e
Barakaldo

muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

- **Banakako elkarrizketak:** ikasle bakoitzari buruzko informazio zehatza. Irakasle bakoitzak egiten du bai bere aldetik eskatuta bai familiak eskatuta. Elkarrizketa hauen akta jasotzen da oinarrizkoena aipatuz eta erabakiak islatuz. Akta hauek "Aktak" karpetan jasotzen dira.
- **Informazio liburutxoa:** web orrian agertzen denaren informazio laburtua: langileak, OOG, egutegia eta ordutegia, jantokiaren funtzionamendua, proiektuak, eskolaz kanpokoak, araudi orokorra eta euskararen inguruko aholkuak. Ikasturte hasieran banatzen da familiako, zuzendaritza taldeak prestatuta.

Irakasleei dagokiena:

- **Klaustro bilerak:** informazio orokorra emateko, proiektuak eta planak aurkeztu eta onartzeko, arazoaren aurrean erabakiak hartzeko. Zuzendaritza taldeak deitzen du.
- **Batzorde pedagogikoa:** ikasketa buruak zuzentzen du, astean behin egiten da eta zikloentzako informazio interesgarria ematen da funtzionamenduarekin zerikusia dutena tratatzeaz aparte. Ziklo bakoitzeko koordinatzaileek osatzen dute bibliotekako arduraduna eta aholkulariarekin batera. Funtzionamendurako erabakiak hartzen dira bertan eta proposamenak aurkeztu. Foro honetan informazioa zuzendaritzatik zikloetara, zikloetatik zuzendaritzara eta zikloen arteko informazioa trukatzeko da. Urteko planari dagokionez, zikloei aurkeztuko zaie klaustroan gero onar dezagun.
- **Ziklo bilerak:** ziklo bakoitzeko irakasleek osatuta. Batzorde pedagogikoan tratatutakoa komentatzen da eta proposamenak edo erabakiak pedagogikara itzultzen dira.

Gainerako langileei dagokiena:

- **Jantokiko langileekin bilerak:** jantoki arduradunak egiten ditu, maizago ikasturte hasieran, zerbitzuaren funtzionamendua ezartzeko eta sor daitezkeen zailtasunak tratatzeko. Langileen proposamen eta iritziak jasotzen dira. Jantoki arduradunak zuzendaritzarekin komentatzen ditu.
- **Atezainekin:** zuzendaritzarekin egiten dira unean uneko hartu-emanak.



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



A21e
Barakaldo

muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

IUP-REN GARAPENAREN ETA IKASTETXEKO FUNTZIONAMENDUAREN JARRAIPENA

1.- Maila desberdinetan errefortzu jarduerak planifikatu, adostutako irizpideen arabera.

Zuzendaritza taldea arduratuko da jarraipenaz, azaroaren amaieran eta abenduaren amaieran zikloetatik jasotako informazioarekin.

2.- Ikasle berriei buruzko informazioa jasotzeko prozedura ezartzea.

Zuzendaritza taldeak eta aholkulariak arduratuko dira jarraipenaz, abenduaren erdi aldera irakasleen iritzia jasoz eta otsailaren amaierarako prozesua idatzita.

3.- Matematiketako buruketak lantzeko lan kooperatiboa antolatzea saio baten.

Irakasleei eskatuko zaie batzorde pedagogikoan programazioan islatu duten adieraztea urtarrilean eta maiatzean.

4.- Antolaketa hoberean lortzea maila guztietan, nor bere lanari dagokionean etekin handiagoa ateratzeko eta gure esku dauzkagun baliabideak errentagarriago bihurtzeko.

Zuzendaritza taldeak ikasturte hasieran ziurtatuko du irakasle guztien ordutegietan koordinazio saioa ezarrita dagoela.

5.- "*Inklusiorako bideetan trebatzen*" proiektua abian jartzea.

Zuzendaritza taldea arduratuko da jarraipenaz, azaroan, martxoan eta ekainean formakuntza saioetako parte-hartzaileak aztertuta, eta saioen erregistroa batzorde pedagogikoan komentatuko da.

6.- Ziurtatu irakasle guztiek AJA ezagutzen dutela.

Zuzendaritza taldea arduratuko da jarraipenaz, batzorde pedagogikoaren martxoko aktetan iritzirik jaso den aztertuta.

7.- Sentsibilizazio fasea burutzea eta, ondoren, iaz egindako diagnostika kontuan hartuta, plangintza egitea.

Zuzendaritza taldea arduratuko da jarraipenaz, abenduan elkarbizitza kontzeptua definitu den ziurtatuz eta martxoaren amaierarako plangintza idatzita dagoela aztertuz.

8.- Nolega batzordea "berpiztu" eta estamentu guztiei haren inguruko informazioa nola eman zehaztea.

HNAT eta batzordekideak arduratuko dira jarraipenaz, ikasturte amaieran aktak aztertuz. Martxoan akta kopurua aztertuko da.



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

9.- Barakaldoko gainerako eskola eta udaletxearekin batera kontsumo gaia jorratzea.

Agenda 21eko arduraduna arduratuko da jarraipenaz, ekainean aktak aztertuz eta memorian islatuz.

10.- Aurreko urteetan landutako prozesuak berrikustea eta idatzita izatea.

Zuzendaritza taldea arduratuko da jarraipenaz, urtarrilean eta maiatzean prozesu guztiak aztertuta.

11.- Urtean zehar egiten diren irteerak aztertzea: haien egokitasuna eta eraginkortasuna.

Batzorde pedagogikoa arduratuko da jarraipenaz, apirilean eta ekainean zikloetako aktetan zer islatzen den begiratuta.

12.- Eskolaz kanpoko ekintzak egiteko tokiak adostea.

Zuzendaritza taldea arduratuko da jarraipenaz, urriaren amaieran erabiltzen diren espazioak gainbegiratuta eta ekainean proposamen berriak jasotzeko bilera eginda.



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

OOG-REN ONARPEN AKTA

Behin irakurrita, Mukusuluba LHIko 2011-2012 ikasturterako Ikastetxeko Urteko Plana onartzen da, Eskola Kontseiluko batzorde iraunkorraren azaroaren 29ko aktan jasotzen den moduan.

Barakaldo, 2011ko azaroaren 29an

Lehendakaria

Idazkaria

Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorena
CEP MUKUSULUBA LHI